BEHATUZ
GIZARTE ZERBITZUEN
EUSKAL BEHATOKIA

GZ GIZARTERATUZ
Analisia|Ikerketak



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ETA PERTSONEN ARTEKO BESTE INDARKERIA MOTA BATZUK

Emakumeen aurkako indarkeriari eta pertsonen arteko beste indarkeria-mota batzuei buruzko inkesta da Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailak Euskadin egin duen lehen inkesta ofiziala. Inkesta horren helburua da arazo horren garrantzia neurtzea eta emakumeek bikotearen barruan nahiz kanpoan indarkeria-mota desberdinak pairatzen dituzten maiztasunari buruzko datuak biltzea.

Emakumeen aurkako indarkeriaren prebalentzia




Inkesta honen arabera, 16 eta 85 urte bitarteko emakumeen %48,2k indarkeria motaren bat jasan du bere bizitzako uneren batean, eta %7,4k pairatu du azken urtean.

Azterlanean jasotako indarkeria moraz aztertzean, honako hau ikusten da:

- Emakumeen heren bat sexu-indarkeriaren biktima izan da bizitzan zehar.
- %28,6k indarkeria psikologikoa jasan du bikotearen barruan.
- %25,4k indarkeria fisikoa kasan du edo kaltea jasateko mehatxuak jaso ditu.

Indarkeria gertatu den eremua kontuan hartuta, emakumeen %29,4k adierazi du bikotearengandik edo bikotekide ohiarengandik pairatu duela, %33,4k adierazi zu bikote-harremanetik kanpo bizi izan dela, eta %6,9k bi testuinguruetan bizi izan duela.

Emakumeen aurkako indarkeriaren prebalentzia bizitzan zehar, indarkeria-mota eta indarkeria geratzen den eremuaren arabera



* Indarkeria psikologikoa bikotearen eremuan bakarrik aztertu da.


Indarkeriak ez die berdin eragiten emakume guztiei



Adinak aukera ematen du indarkeria-motaren prebalentzia-tasetan alde batzuk ikusteko, nahiz eta datuek adierazten duten indarkeria horrek adin guztietako emakumeei eragiten diela. Adierazi behar da kontuan hartutako adina ez dela gaur egungoa, emakumeak indarkeria-gertaera izan zuen unekoa baizik.


Indarkeriaren prebalentzia handiagoa da 45 urtetik beherako emakumeen artean, eta bereziki nabarmentzen dira 30-44 urte bitartekoak (%62,3) eta 16-29 urte bitartekoak (%55,8). Kopuru hori nabarmen jaisten da 65 urte eta gehiagoko emakumeen artean. Hala ere, garrantzitsua da kontuan hartzea adin handiagoko emakumeen tasarik txikienak indarkeria-egoerak aitortzea zailtzen duten hezkunta- eta/edo kultura-baldintzatzaileen ondorio izan daitezkeela.

Emakumeen aurkako indarkeriaren prebalentzia bizitzan zehar, adin-taldeen arabera




Emakumeen nazionalitateak ere desberdintasunak islatzen ditu indarkeriaren prebalentzian. Bereziki, jatorri atzerritarreko emakumeek bikotearen eremuko indarkeria psikologikoko kasuen ehunekoa nabarmen handiagoa da.

Emakumeen aurkako indarkeriaren prebalentzia bizitza zehar, nazionalitatearen arabera




Laguntza eskaera eta salaketa




Bizitzan zehar indarkeria-motaren bat jasan duten emakumeen %18,4k laguntza medikoa edo psikologikoa jaso zuen gertakari horien ondorioz, eta %17,3k jaso ez arren, jaso beharko zukeela uste du. Gainerako %63,8k, berriz, ez du horrelako laguntzarik behar izan.

Indarkeria fisiko eta psikologikoko kasuetan, emakume biktimen heren batek lortu du nolabaiteko arreta. Jaso ez arren behar zutela uste zutenak gehituz gero, ehunekoa biktima izan diren emakumeen erdira igotzen da.

Indarkeriaren biktimentzako laguntza mediko edo psikologikoaren beharra, indarkeria motaren arabera






Salaketei dagokienez, azterlanaren datuek agerian uzten dute indarkeria-gertakari gehienak ez direla jakinarazten. Indarkeria jasan dutela adierazten duten emakumeen %13,9k baino ez du inoiz salaketa jarri, bikotekidearen barruan zein kanpoan. Ehuneko hori handiagoa da indarkeria fisikoko kasuetan (%24,5).



Noizbait bizi izan dituzten indarkeria-egoerak salati dituzten emakumeak, indarkeria-motaren arabera



Indarkeria-kasu horiek ez salatzeko arrazoi nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira: indarkeria delitu salagarria gisa ez identifikatzea (%64,5), erru, lotsa edo blokeo emozionala sentitzea (%19,1) edo prozesu judizial batekin lotuta hautematen diren zailtasunak (%18,4).

Erasotzaileen ezaugarriak



Azterlan honek indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak aztertzeaz gain, erasotzaileei buruzko datuak ere ematen ditu.


Bikotekide edo bikotekide ohiaren esparruan

Emakumeen aurkako bikote-indarkeriako ia kasu guztietan, erasotzailea gizonezkoa da (%98,3). Erasotzaile gehienek (%37,2) 16-29 urte zituzten indarkeria-gertakaria gertatu zen unean, 30-44 urteko taldeak jarraituta (%34,9). Gainera, emakume gehienei espainiar nazionalitateko pertsonek eraso diete (kasuen %83,1).

Bikotetik kanpo

Inkestatutako emakumeen %96,6k gutxienez gizon bat identifikatu du erasotzaile gisa. Kasu gehienetan (%88,8), erasoen erantzule guztiak gizonak ziren, eta ehuneko hori %98,5era igotzen da sexu-indarkeria denean. Era berean, biktimen erdiak inguruk adierazi du erasotzaileetako bat, gutxienez, ezaguna zela. Kasuen %40,3an, guztiak biktimaren ingurukoak ziren, eta %50,9an, berriz, ezezagunak.

Bikotetik kanpo indarkeria fisiko eta/edo sexuala jasan duten biktimen banaketa, erasotzaileen ezagutzaren arabera



emakumeen aurkako indarkeria eta pertsonen arteko beste indarkeria mota batzuk

Iturria: *Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa*. **Indarkeria matxista bikote-esparruan eta bikote-esparrutik kanpo. 2024ko Emakumeen aurkako Indarkeriari eta pertsonen arteko beste indarkeria mota batzuei buruzko Inkesta**.
Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2025, 86 or.

Dokumenturako sarbidea

